

Har daitezzen liburu guztien berri emango du sail honek. Gainera, liburu bakoitzari ikur bat ezarriko zaio, giltz honen arauera:

- ****: Euskaldun kulto orok irakurri beharrezko liburua.
- ***: Guztiz irakurgarria (edo guztiz interesgarria).
- ** : Interesgarria (edo irakurgarria).
- * : Gomendagaitza.

Euskal hiztegi modernoa

**** **Euskal hiztegi modernoa. Diccionario moderno.** Egileak: Xabier Kintana eta Joseba Tobar, Jon Aurre, Rikardo Badiola, Sabin Egilegor, Juan Luis Goikoetxea, Juanjo Zearreta eta Koldo Zuazo irakasleekin elkar-lanean. Irudiak: Antton Olariaga. Hitzaurrea. Prólogo. Grammatikazko puntuak. Alphabetoa. Laburdurak. Abreviaturas. Euskara-espainiera hiztegia (42.000 hitz, 55.000 adiera). Gehigarriak: 1. Geographi izenak. 2. Pertsona izenak. 3. Mythologi izenak. Latinezko esaldiak. Diccionario español-vasco (30.000 hitz, 35.000 adiera). Addenda: 1. Nombres geográficos. 2. Nombres históricos. 3. Nombres mitológicos. Editorial Cinsa, Bilbao 1977. 736 orrialde 15 x 21. 1.000 pezeta.

Euskal literaturgintzaren historian, hiru garai nagusi bereiz daitezke: mende honen hasiera arte hedatzen dena, mende honetako lehen sei hamarkadak betetzen dituen, eta azken urteotakoa.

Garai bakoitzak, aurrekoen ideien eta presuposaketen iraulteta dakar, eta honekin batera, literatur eta kultur estrategiaren norabide-aldakuntza funtsezko bat. Eta noski (eta hau da orain axola zaiguna), erabiltzen den hizkuntza-motarena eta bereziki hiztegiarena, hau da, hizkintza (hitzgintza)rena.

Lehen garaiari dagokionez, euskal zibilizazio nekazari eta arrantzalearen ondasun lexikala eta literatura klasikoak aurrera-

bideratu zuena, Azkueren hiztegi nagusira bildu ziren, nahiz partzialki bildu, Lekeitioko apaizak bere erizpide garbizalearen bahetik pasa zirenak soilik eman baitzizkigun. Hurrengo garaiko garbizaleen iharduikiaren emaitza, Lopez Mendizabal eta Mugikaren hiztegieta bildu zen. Aski da hauk Azkuerenarekin parekatzea, bi garaien artean gertatzen den etenaz ohartzeko.

Azken belaunaldiarekin euskaldungoan gertatu den iraulketaz, ez dago *Jakin*-en irakurleen artean luzaz mintzatu beharrik. Gogora dezagun soilik azken hamabi urte hauetan XVI, XVII, XVIII. eta XIX. mendeetan baino aski gehiago argitara dela euskaraz, eta urteotako produkzioa ez dela, gerra aurreko eta ondokoa bezala, euskara plazaratzeko gogo ilun eta anbiguo baten fruitu izan, gure hizkuntza euskal gizartearen espresio-beharkizunetara egokitzeko asmo askoz ohartu eta koherenteago baten ondorio baikik. Bestalde, aurreko garaietako hiztegi gintzak ezer gutxi eskain ziezaiokeen batasunaren kezka, sentsibiltate hiritar eta moderno batek eta euskara gostarik gosta zernahi gaitan erabiltzeko grinak ukiturik idaztera abiatzen zenari. Gauzak horrela, bakoitza ahal duena eginez ibili da, aurreko hiztegi gintzari amore emanez batzutan, bere kasa asmatutakoak nahiz besteri irakurriak erabiliz bestetan.

Ihardun honen ondorioz sortu den hizkuntza ugari baina inkoherente hori bil, azter, zuzen eta sistema zezan lehen lan bederen probisional eta behin-behineko baten premia sentitzen zen jadanik. Eginkizuna egitekotsua zen, baina urgentea halaber. Ausartzia behar zen, baina, ausartziarekin batera, euskal linguistikaren, batasunaren zentzuaren eta azken urteotako produkzioaren berri sakonki jakin behar zen.

Baldintza guztiok betetzen zituen talde batek burutu du lana, hiru urtetako ekinaldi baten ondoren. Horrela, eta berehala aipatuko ditudan nire ustezko akatsak gora behera, *Euskal Hiztegi Modernoa*-z, euskaldun ikasi orok eta are euskara-ikasle orok eguneroko lanean erabili beharko duen obra bat eskaini digute. Bego hori kritika guztien gainetik eta aurretik.

Euskal Hiztegi Modernoa argitara baino bi hilabete lehenagotik ezagutzen dut, Kintana adiskideak utzi zidan inprenta-proben fotokopia baten bidez. Aitortu behar dut, guztiz baliagarria gertatu zaidala beti, erreferentzi puntu seguru bezala bederen. Ondoko lerroak, bi hilabetetako erabilkuntza etengabe horren eta euskal parteko A, B, eta E letren azterketa sakon batek eskaini dizkidan eritzi-elementuen azalpen partzial bat izango dira.

Kintana eta honen ekipoaren lanaren zati bat, Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés*-en ikerketaren ondorio da, hitzaurrean bertan adierazten denez eta obrak berak nabari duenez. Jakina denez, Azkueren hiztegi nagusia ez da berez hiztegi arauemaile bat, deskriptiboa baizik. Horrela, lehenik, hitz baikoitzaren bariante eta azpibarianteen oihanetik bat hautatu edo zenbait bereizi behar zen. Egiteko hau, oro har, egoki egin da. Horretarako erabili diren erizpideak, hitzaurrean adierazten direnak, nahiko zuzenak eta koherenteak iruditzen zaizkit. Hala-ber, Azkueren hiztegiaren hutsegiteak saihestu dira gehienetan: ezagun da, literatura klasikoaz eta Azkueren iturrien azterketa kritiko sakona egin dela. Dena dela, *Euskal Hiztegi Modernoa, Diccionario Vasco-Español-Francés*-ari lotuegia aurkitzen dut hainbat puntutan; bereziki, euskal hiztegi-gintzaren huts larrietako bat gertatzen den gramatik kategorien arazoa tartean sartzen denean. Uste dut, zenbait adibidek aski argi utziko duela esan nahi dudana: «*Aurtzaka*: navegar con viento contrario» (Azkuek bezala). Argi dago *aurtzaka* ez dela «navegar», adberbio bat delako eta ez aditz bat. Hiztegi Modernoaren arabera 'hemos navegado con viento contrario', *aurtzaka* *dugu* litzateke. Horrelako ordainek, hiztegian Azkuerenari jarraiturik askotan ematen direnek, ez dute irakurlea eta idazlea nahasi besterik egiten. Ene ustez, «*Aurtzaka*: contra viento (navegar, bogar...）」 edo horrelako zerbaitek, nahasbide asko saihets zezakeen. Berdin, «*Axun*: (NG) perra, gata o cerda preñada». Ordainaren arabera *axun* izena da, 'perra, gata o cerda' delako ('preñada' mugatzaile edo zehaztaile bat besterik ez da 'con viento contrario' 'navegar'i buruz bezala). Hitz honetan, *Hiztegi Modernoak* Azkuerena okertu egiten du, honek, zuzenago, «*Axun*; preñada (se dice de la marrana, perra o gata)» ezartzen baitu. Hemen beste askotan bezala, (eta har beza hau kontutan irakurleak) adibideak salbatzen du *Hiztegi Modernoa* nahasbidetik. *Erdipurdi*-ren ordaintzat 'informalidad' ematen da, hori ere Azkuerengandik besterik gabe hartuta. Esanahien artean dagoen desegokitasuna alde batera utzirik, 'informalidad' izen bat da eta *erdipurdi* ez: ezin daiteke esan 'erdipurdi handi bat', ez eta 'erdipurdi' da Mikelen akatsik nagusia. Hemen ere, adibideei esker zuzen daiteke definizioaren okertasuna. Adibideak ugaritzea ez litzateke zaila izango, baina uste dut irakurleak aski izango duela hauekin arazoaz jabetzeko.

Euskal Hiztegi Moderno-n asko eskertzen diren gauzetatik bat, adibideak dira: eskaintzen dituzten argitasunengatik, hizte-

gia askoz erabilkorragoa bihurtzen baitute; adibidez, aditzen erabilketaz ematen dituztenak. Dena dela ere, hemen gabezia bat nabari dugu; nola da, *erreinatu da* ala *erreinatu du?* *eldarniatu da* ala *eldarniatu du?* *ezindu da* ala *ezindu du?* *Urliak eta Sandiak eztabaidatu zuten?* Uste dut horrelako informazio bat guttiz ongi hartuko zukeela idazle batek.

Hitz berriei buruz, ekipoak hitz-bilketa ia exhaustibo bat burutu duela esan daiteke. Oinharri sendo eta seguru hori ere argi nabari da *Hiztegi Modernoa*-n zehar. Sail honetan agertzen den gutzia ez da, nire ustez, urre gorria, baina horren kulpaz ez da hiztegia moldatu dutenena, gure hizkuntzaren egoerarena baizik: ez da miraririk egin, miraririk ezin egin zitekeelako hain zuzen. Askotan, txartasun gutxieneko hitza hautatzera mugatu behar izan dute; baina hori zen hiztegi-gileengandik espero ahal genuen bakarra.

Gauzak horrela, hurrengo lerroak areago dira egoera baten kritika, zuzenki hiztegiarena baino. Bego alde aurretiko ohar hau. *Euskal Hiztegi Modernoa*-n hitzen ordez, eta hitzak balira bezala, sintagma osoak ematen zaizkigu, hau da, hitzaren parafraasiak, eta hori arrisksua iruditzen zait. Beste hitz batzuetaz, kaltegarria iruditzen zait euskararen aurrerabiderako (epe luze-rako lan batetan pantsatuz batez ere) *Hiztegi Moderno*-k (eta, oro har, gure hizkuntzak) agertzen duen joera sintetikoa, gaine-rako kultur hizkuntzen analitikoaren ondoan: *eskilamibi* juntu idatzirik, ez dugu inor enganiatzen: hor, egiatan, zera egin da: *mibi* hitzari adiera berri bat, 'badajo', ematea. Eta hobe gauza horrela geratu balitz, eta 'badajo'n *mibi* (eta ez *kanpanmibi*, *eskilamibi*) jarri balitz; «eskila handiaren eskilamihia erori da»ren ordez «eskila handiaren mihia erori da» izango genukeen eta alde guztietatik irabaziz aterako ginatkeen. Euskal Hiztegi modernoari jarraikiz, «hainbat bizilagun bizi den bizilekuaren bizikondizioak» eta horrelako enjendroak atera daitezke. Hildo berean, *bizkarrezurdun* hitzaren euskal definizioa (eta inoiz euskal hitzen euskal definizioa eman beharko dugula uste dut) ematean, «bizkarrean hezurra duena» edo horrelako zerbait eman beharko litzateke, hau da, tautologia bat, «el *caballoblancodesantiago* es el caballo blanco de Santiago» esango bagenu bezala. Horrela ezin daiteke kultur hizkuntza bat presta.

Honekin zerikusirik baduen beste problema bat, adibide baten bidez aipatu besterik ez dut egingo. «*Askitan*: bastantes veces» (Azkuek berdin). Itzulpena motza eta nahasgarria gerta

daiteke, *askitan* 'en bastantes' baita, nahiz 'veces' nahiz beste zerbaít: «Zenbat lekutan ikusi duzu? —Askitan». Hemen *askitan*, *aski lekutan*-en ordain da. Berdin gertatzen da -(z)ko atzikiaren bidez eratu diren hainbat hitzekin, adibidez.

Askoren ustez hiztegiaren akats haundienetako bat datekeenari, ortografia bereziarenari (ph, mm, y...), ez deritzot garrantzizkoa, ohizko sistemarako iraganbidea automatikoa baita edonorentzat. Ez naiz sistema horren aldekoa, epe laburrera behintzat, baina hori beste gauza bat da. Ez nago ordea hain konforme egin diren hainbat «berreraiketa etimologiko»rekin: 'hatz' *h*-z idatzen dela ez zait arrazoia iruditzen, *atzeman* hitzari iparraldeko tradizio klasikoan bertan izan ez duen *h* bat ezartzeko. Batasuna, hitz berberak adierazten duenez, batua ez dagoena batzea da. Horrela *harri* eta *arri*-ren edo *bete* eta *bethe*-ren artean bat aukeratu behar zen batasunaren izenean, eta bat aukeratu zen. Baina *atzapar*, *atzeman* eta antzekoetan (zenbait dialektokeria klar alde batera utzirik) batasuna eginik zegoen, ezer batu, eta beraz ukitu, beharrik gabe. Berdin *erbeste*-rekin, sartaldeko forma delarik eta *euskaldun filologian ez espezialduaren competence*-an ez delako 'herri'ren deribatu bezala sentitzen jadenik. Hildo honetan, ez dakit zergatik *atseden*-i, 'hats'etik omen datorrelarik, ez zaion *h* bat ezarri. Euskaltzaindiak, bere 2.000 hitzeko zerrendan, *atzapar* eta *atzeman* ezarri zituenean, bide ona aukeratu zuen, nire ustez. Beste hainbeste esango nuke *askazal* (ik. Lafitteren hiztegiaren 'ongle') edo *bestu*-ri dago-kionez: *bestu* ez da inoiz idatzi. *Estu* bai eta halaber *bertsi*, baina honek ez du bestea zilegiztatzen. Bukatzeko, *azaro*-n ortografi huts bat dagoela Euskaltzaindiari leporatzea, *hueso* eta *buevo* direla eta *osamenta* eta *ovario*-ren ortografi hutsak Real Academia de la Lengua Española-ri leporatzea bezain zentzugabea iruditzen zait. Halaber, erizpide etimologikoek ez dute *astelehen* (*astelen* hedatuagoaren kaltetan) legeztatzen: hor dugu ingelesez *moon* baina *monday*.

Antzeko arrazoiengatik, ez nituzke *Hiztegia*-n «neologismo incorrecto» sanbenittoa egotzirik arbuatzen diren hitzak hain erabat baztertuko. Gure literaturan nahiko tradizio duten hitzak zokoratzeko sortu direnetan (abesti/kanta), zaharari emango nioke nik lehentasuna. Baina anartean euskaraz erabili ez ziren esannahientzat sortuz joan ziren hitzei dagokienez, *Hiztegi moderno*a oinharritzen deneko erizpide hori ez zait hitz bat baztertzeke nahikoa iruditzen, erdal jatorrizkoak zilegiztatzen dituen arrazoi berberak zilegiztatzen dituelako horik ere: erabil-

ketak, idazleen artean izan duten harrerak, hitz batez, tradizioak. Eta niretzat bederen, beti problematsu gertatzen diren gramatik zulentasunezko eritzien gainetik dago tradizioa. Ez ditzagun filologia eta hizkuntza bizia, hizkuntza-tresna, nahas. Nahiago dut «habitante»ren ordaintzat *biztanle* hitz «okerra», jadanik XIX. mendeko idazleek hainbat erabili zutena, *bizilagun* perifrasi, askoz anbiguo eta esangura zabalagokoa baino. Halaber, *sorterri* zaharrak ez du azken urteotan «patria»k hartu duen adiera politikoki konnotatua ordaintzen: *aberi*-k, aldiz, bai. Hildo berean, euskal parteko hainbat hitzetan (*eus* eta *euz*-ez hasten direnez ari naiz batez ere) adierazten direnei dagokienez, ez zait hiztegi bat tankera horretako eritziak, arrazoiak eta desarrazoiak, plazaratzeko tokirik aproposena iruditzen.

Inprenta-lana, Euskal Hiztegi Modernoaren funtseko lan batek merezi zukeenaz guztiz behetik dago, eta horrelako lan batetan badu puntu honek bere garrantzia. Orobat koadernape-naz, kontsulta-liburu batetan ahulegia eta hauskorregia gertatzen denaz.

Baina nire ustezko akats erlatibo guztiz baztergarri hauek ez dute Kintanak eta bere ekipoak burutu duten lan eskerga lausotzen. Akatsok, gainera, eta adierazi denez, hiztegiarenak baino areago gure hiztegi-gintzaren egoerarenak dira. Obra hor dago. Ikasleak mirariturik geratuko dira, ulertzen ez duten hitza azkenean hiztegi batetan agertzen dela ikusteaz: *Euskal Hiztegi Modernoa*-z ez da jadanik egia «ez daude diren guztiak eta ez dira dauden guztiak» hura. Eta idazleak ez du hainbat denbora galduko ez eta hainbat buruhauste izango bere lanean, ez urrik eman ere. Zeren, beharbada, *Euskal Hiztegi Modernoa* ez da hiztegi on bat izango. Baina badu hori baino meritu erbakikorrago bat: oro har, dugun hiztegitik onena eta hobereena dela.

*** **Zorion ustela.** Arduradunak: Koldo Izagirre, Ramon Saizarbitoria. Partaideak: B. Atxaga, X. O. Maketa eta grafia: J. B. Berasategi. 32 orrialde 19 x 28. 100 pezeta.

Ustela sailaren bigarren alea. Ataria, aldizkari independenteen independentasunaz. «n oraindik ere egun oraindik ere egun», euskaldunak bere herrian oraindik pairatu behar duen marginazioa adierazten duen gertakari aski bitxi baina mingarri bati buruzko gogoeta. Izenbururik gabe, euskal kultur estratejiaren aspektu baten kritika. «Herria euskara literatura eta horrelako batzuk», inguruko literaturgintzen imitaketa alfe-